

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko apirilaren 20a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Hemendik aitzina gazteen topaleku izanen den aretoa ireki berri dute hirian
Francisco Obregozo • «Gaur egun oso arraroa da norbaitek burdinolara behia ekartzea»

Donejakue



Euria, elurra, haizea zein eguzki izpien babesean ttipi-ttapa abiatzen dira lurraren akaberaino gezi horia jarraituz. Orreagatik Santiagorako ibilbidea egiten duten erromesak gero eta ugariagoak dira eta hazkunde honi aurre egiteko anitzak dira Nafarroan Donejakue Bidearen itzalean sortu diren ekimenak. Azkenekoa Nafarroako Kanpinen Elkarteak sortu berri duen web gunea.



Bidearen itzalean

Baztan • Aziendarik ez udaberriko ferian

Artisau gasnak eta etxeakoak sarituko dira igandean ospatuko den jaiegunean

Aurreneko aldiz, Elizondoko Udaberriko ferian ezin izanen dira abereak ikusi; hala ere, antolatzaileek egitarau berezia eta oparoa prestatu dute bai bertakoek zein harat joanen direnek egun ederra pasa dezaten



Gustu guztietarako gasnak izango dira dastagai azokan • JOXE LACALLE

AHERIA ETA BEHI EROEN ERITASUNAK saihesteko asmoz agertu diren debekuek Baztango Udaberriko ferian ere izanen dute eragina. Feria aziendarik gabe egiten den lehendabiziko urtea izanen da.

Duela hiru urtetik hona aharien lehiaketa ere izaten zen, eta bertan behera utzi behar izan dute hori ere. Hala ere, antolatzaileek egun handi hau aurrera aterahi nahi izan dute, eta horretarako,

berrikuntzak sartu dituzte egitarauan, egunari bizitasuna emateko. Besteak beste, Nafarroako Aretzea Izendapenak 300 kiloko aretze bat oparituko du bertan erre eta pintxoetan jateko. Udaberriko feria bertako produktuen feria bezala ere ezagutzen da, inguruko artisau eta eskulangile gehienak biltzen baitira Elizondon egun honetan. Hauek guztiek aurten Foruen Plazan izanen dituzte erakustoki

eta saltokiak egun osoan. Feria honek nolabait ere garrantzia galdua zeukan duela lau urte arte; orduetik aurrera, abeltzainak animaliekin berriro feriara joaten izan da antolatzaileen nahia, pixkanaka arestian zuen nekazari kutsua emateko, baina aurten beldur dira debekuek izan dezaketeneraginarekin.

Egun osoan txistularien musika entzungo da herriko kaleetan. Goiz partean, Baztan, Urdazubi

eta Zugarramurdiko gasnarik onenak aukeratuko dira lehiaketan. Bi talde izanen dira: batetik, artisau gasnak, eta bestetik, etxeakoak. Aurten egindako gasnak izan beharko dute; bertan, zaporea, itxura, kolorea eta antzeko ezaugarriak hartuko dira kontuan puntuazioak emateko orduan. Lehiaketaren ondotik, eta sabela betetzen jarraitzeko, Baztan Zopak dastatzeko aukera izanen da, plazan bertan.

Unerik hunkigarriena ondotik iritsiko da. Antolatzaileek Arraiozko Indakoa baserriko Javier Mindegia Labaien abeltzaina omenduko dute. Baztango lehen *behi eroa* berea izan zen, eta nolabait ere elkartasuna erakutsi nahirik, oroigarri bat emanen zaio. Javier Mindegia beste urteetan aharien lehiaketa irabazi zuen, aurten, ordea, bere artalde guztia, ahariak barne, laster akabatuko diote, badaezpadako neurri moduan. Egunean egingo den bigarren omenaldia Tomas Ondikol Arotzene trantante zenari egingo zaio. Gisa horretan, gizon hauek abeltzainen eta erosleen artean egiten duten lotura lana gogoratuko da. Arratsalde partean, Foruen Plazan Baztango Dantzariak ariko dira, eta ondotik, nahi duenarentzat, Joxe Angel Elizalde akordeolariarekin dantzaldia izanen da. Baztango Udala, Bertizko Partzuergo, Cederna-Garalur eta Elizondoko herria dira besteren artean egun berezi honen antolatzaile eta laguntzaileak

→ Rakes Goñi

Lesaka • Enpresa mintegia martxan

JOAN DEN UDAZKENEAN ZABALDU arren, joan den astean ireki zituen ofizialki ateak Alkaiagako Enpresa mintegia. Lesakako Udalak bul-tzatuta, Alkaiagako industrialde berrian koka

tua, enpresa berriak sortzea eta daudenei zerbitzuak eskaintzea du helburu.

Lesakako Udalak, Alkaiagako industrialdea zabaltzarekin bat, lanpostu berriak sortzeko asmoa agertu zuen. Industrialdeak har zitzakeen enpresa guztiak hartu ditu —oraindik zenbait martxan ez badaude ere, lur guztia salduta dago—, eta hainbat lanpostu sortu dira. Jendeak bere negozioa sordezan, berriz, bulkaldia eman nahi dio, eta horretarako sortu dute Enpresa mintegia. Horrelako bertze bi mintegi ere badaude Zarratzen eta Sakanan, eta hirurak elkarrekin koordinatuko dira.

Nahi duen ororentzat 60 metro koadroko moduluak egokitu dituzte, argindar eta urarekin hornituak. Lehen bi urteak bertan egin ahal izanen dituzte bertan finkatzen direnek, eta gero, lantegia bideragarria bada, kanpora atera beharko du. Horrekin batera, hainbat zerbitzu eskaintzen zaizkio enpresa aitzinera ateratzeko tenorean, eta hainbat zerbitzu eskaintzen zaizkie bertako enpresa guztiei. Zerbitzu horiek guztiak Garalur garapen agentziak kudeatuko ditu, eta mintegia Lesakan dagoen arren, Bortzirietako, Baztango eta Malerreko edonorentzat dago zabalik.

→ Jon Abril

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



Ene amaren abueloak Errepublikara garaian bere bi alabak hiru koloredun banderarekin jantzi zituen, apirilaren 14 batean. Gerra piztu zuten, eta honek iraun bitartean, ene amaren abueloak Vega de Pasen —egun Kantabria— eman zuen denbora, bere etxetik ihesi. Gerra bertzeek irabazi zuten; honen ondorioz, ene amaren abuelori erran, eskatu, erregutu zioten oraino herrira ez itzultzeko, badaezpada. Gizon bizkorra omen zen ene amaren abueloa, eta herrira itzultzea deliberatu zuen: «beldurrik ez dugu zertan ukan», pentsatu edo erranen zien ondokoei, familiari. Halaxe egin zuen, eta herrira heldu bezain fite preso hartu eta lubaki batean, herritik ez urrutian, gerra irabazleek akabatu zuten, gerra amaitua zen arren, eta retaguardian.

Ene Oroimen kaia

Finean halaxe entzun dut neuk, hala kontatu didate. Historia labur honek baditu arantza edo pasadizo gehiago, segun nor den aktorea, kontalaria eta abar. Gogoangarriak ditut ene abuelaren ateraldiak eta inarrosaldiak gerra garaiko kontakizunak luzatzen zizkidalarik.

Ene aitaren familiari ere galtzaileen bando-an egotea egokitu zitzaion. Ez ditut hain oroitzapen dramatikoak, baina bai amorru isil sendoagoa. Zenbait kontu aditu dut alde honetatik ere.

Lagun anitzekin elekatu niz gai honetaz, tartean hau izan baita hizpidea. Ene lagun nafar gehienok ez dute gerra garaiko oroitzapenik. Ez on, ez txar. Gurasoek ez diete honen ingururik luzatu. Apitxi-amutxak are guttiago.

Begoña Erraztik bota zuen Gernikan duela astebete franquismoa berpizten ari dela. Ene uste apalean okertu egin zen. Hasteko, franquismoa ez da oraino itzali, televisión espafola ikustea bertzerik ez da honetaz ohartzeko. Errealitateak ere manera eta bide ezberdinetatik erakusten digu caudillo-ren obraren itzal itzela: artistak azter ditzagun, intelektualak bila ditzagun, politika-mika bil dezagun, ereduak kontuan har ditzagun, pentsa dezagun, bizi gaitezen, izan gaitezen.

Kopetilun ibiltzeko garaia dugu. Gero eta maku-ragoa dugu bidea. Baikorrak izatera zigortuak gaude, zabarkeria arruntean erori nahi ez badugu bederen.

Lizarra ●

Gaztelekua zabalik da

Hiriko gazteek beren kezka, nahiak eta beharrak asetzeko gunea ireki berri da

Lizarrako Udalak gazteentzako gunea zabaldu berri du liburutegi zaharreko aretoan. Bertan, gazteek hainbat alorretako informazioa bilatu ahal izanen dute; eta elkartzeko eta jarduerak egiteko lekua izanen dute.

MARTXOAREN 16AN IREKI ZITUEN aurreneko aldiz atek Lizarrako Gaztelekuak. Udaletxeko behe solairuan ehunka metroko aretoa zabaldu berri da, hiriko gazteek euren kezka, nahiak eta beharrak asetzeko xedea duen gunea. Bertan, gazteek hainbat alorretako informazioa bilatu ahal izanen dute, baina hori ez ezik, gaztelekua gunea zabaldu, irekia eta dinamizatzaileria izan nahi du. "Gaztelekuak hiriko gazteek leku bat, espazio fisiko bat, izateko modua ematen du, eta horrela identifikazio bat sortzen da. Elkargune honek Lizarrako gazteek dituzten ekimenak dinamizatzeko motorra izan nahi du, eta hainbat jarduera egiteko leku atsegina, irekia eta zabaldu izatea garrantzitsua da oso", azaldu dute Marta Estebanez eta Marta Tejado teknikariek. "Premiazkoa zen horrelako aretoa bat izatea; Lizarran gazte talde eta elkarte anitz dago, eta sarritan leku bat ez izateak zenbait jarduera ez egitea

esan nahi du. Horregatik, orain elkarte hauekin zuzenean arituko gara lanean eta haien ekimenak aurrera ateratzeko saioa egiten dugu hemendik", gaineratu dute.

Lizarrako Udalak 1992. urtean Gazteentzako Informazio Bulegoa ireki zuen, eta 1997. urtean Infolan zerbitzua ere martxan jarri zen. Aipatu bi zerbitzu horiek zabalik jarraitzen dute Gaztelekuan, baina zereginak zabalagoak eta handiagoak dira orain. Teknikarien erranetan, "biltzen den edozein gazteri, alor guztietako informazioa emateaz gain, hemen egoteko aukera izanen dute eta aldizkariak irakurri ahal izanen dute, baita Internet erabili ere". Gaztelekuan ere ikastaro anitz egiten hasiak dira, eta erakusketa aretoa zabaldu dute Raul Santesteban gaztearen lan grafikoarekin.

Beken, bidaien, ikastaroen, lehiaketen eta hezkuntzaren inguruko informazioa eskatzen dute batik bat hiriko gazteek.



Marta Estebanez eta Marta Tejado Gaztelekuaren sarreran, Enrique Albeniz gazteak erakundearentzat egin duen logotipoaren ondoan.

● KRISTINA BERASAIN

Batez bestez 1.100 eskaera izaten ditu urtero Gazteen Informazio Bulegoak. Dagoeneko argazkilaritza, ikasteko teknikak eta adimen emozionaleko ikastaroak egin dira, eta orain tarot ikastaroa egiten ari dira. Txalaparta eta sexu heziketako ikastaroak hastear daude, eta datozen hilabeteotan antzerkia,

dyembe, naturopatia, erlaxazioa, kosmetika, argizariak, malabareak landuko dira ikastarotan. Gaztelekuaren ordutegia hau da: 08:30etatik 15:00etara bitartera asteleheneretik ostiralera, eta 18:00etatik 20:00etara astearte eta ostegunetan.

→ Kristina Berasain

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Xorroxin Lesakan ere

Xorroxin Irratiak Lesakan zabalduko du laster estudio berri bat, eta Nerea Altzuri kazetari aranztarra izanen da hango arduraduna. Altzurik Goiz argi saioa aurkezten du goizero, 07:30etik 09:30era, Elizondotik. Bere lanaz mintzatu da kazetaria **Ttipi-ttapa** aldizkariko azken zenbakian: «Xorroxin programazioa ez da aldatuko. Goiz argi saioa Elizondotik egin beharrean Lesakatik egingen dut. Beharbada, programazioan izanen den aldaketa bakarria astelehenera Hondarribiko artisau batekin egin nahi

dugun saioa da. Orduz orduko informatiboetan telefono bidez elkartzeko ditugu Lesaka eta Elizondo, teknikoki posible baita. Bi berriemailek elkarren ondoan egon beharrean, telefono bidezko harremana izanen dugu, baita bertze saioetan ere».

«Duela laupabortz urte hasi zen Xorroxin aditzen Bortzirietan eta somatzen dugu entzulego bat ere badela. Lehiaketetan parte hartzen duen jendeak hori erakusten du. Beti erran ohi da Xorroxin Baztango Irratia dela, baina

Malerrekan eta Bortzirietan entzule anitz ditugu. Lesakan estudioa jartzeak harreman hori estutzeko eta kolaboratzaile berriak lortzeko baliagarria izaten ahal dela uste dugu. Lesakarrek bertze frekuentzia batean ere aditu ahal izanen dute Xorroxin, 88.0an».

«Xorroxin atea beti irekia egon da guztiontzat, eta orain bigarren ate bat ireki dugu. Edozein ideia edo proiektu buruan izan eta irratian esperientzia hartu nahi duenarentzat hor gaude, Lesakan ere».

Aste Santua.

Bizitza Sakratua da; baldin eta Euskal Gatazkan kentzen badizute. Bestela ez da horren Sakratua. Gauza Biologikoa, naturala eta, hein batean, Jentila, Paganoa, dela esan genezake, baina bizia segitzen du izaten (behintzat). Orain, zer gertatzen da kotxeek kentzen badizute? Bada orduan ez dela ezta bizia ere, istripu bat da, txatarra piloa, baina biziarena ez da inondik inora ikusten. Eta ez da ohitura kontua soilik, kasu. Begira bestela: Aste Santu honetan errepideetan 135 gizasemek bizia galdu dute, eta beste ehunen bat oso larri daude erietzetan barreiatuak, eta horietako askok gaur edo bihar, edo hurrengo astean, bizia galduko dute. (Bizia galdu eta galduko dute, baina galdu esanahi bitxiko hitz uher eta Teleberrizalea da, zeren, berez, ez dira maletak edo leihatilatik erortzen zaizkigun muxuzapien antzera galdu). Gordinago; kotxeek bizitza kendu dietela ere esan genezake, kotxeek erail dituztela. Baina, buenooo!, ez duzue horrelakorik adituko. Joko batera gonbidatzen zaituztet. Irudikatu ezazue beste Aste Santu bat. Balizko Aste Santu horretan Behi Eroen haragia jateagatik 135 pertsona hil dira, eta ehunka larri daude, hiltzorian asko. Zazpi egunetan gertatu da. 135 hildako, ehunka zauritu. Hara! Hortxe agertzen zaigu kotxeek ezkututzen diguten bizia. Hor bai ikusten ditugula hildakoak, banan-banan. Beren zerraldo eta guzti pantailaratuko lituzkete, seguru. Bizia galdu galderak azpimarratuak agertuko lirateke, Egiptoko Zortzigarren Izurritearen izena asmatuko luke baten batek. Elizkizun erraldoiak egingen lituzkete kiroldegietan. Orain, Behi Eroen haragiaren ordez jar ezazue Salmonella. Haragiarekin antzera galdutako biziaren ideia behin eta berriz errepikatuko zuten. Jar ezazue ETA. Orain gauza sakratuez ariko ginatke. Holokaustoaren parekoa izango zen, mundu mundialari egin zaion iraina. Orain jar ezazue Kotxea. Eta ikusi non gelditu diren bizia eta heriotzak sortzen duten aldarria, eta begiratu, gaur egun, hemen, zer den benetako sakratua ●



Nafarroan erromesentzako hamahiru aterpe daude: aurrenekoa Orreagan, eta azkenekoa Vianan, baina tartean herrixka txikietan zein hirietan erromesen pausaleku diren eraikinak topatu ahal ditugu. Soilik oinez, zaldiz edo bizikletaz ibiltzen diren erromesak onartzen dituzte, eta 1.500 inguru (60 libera) kostatzen da gaua bertan egitea. Hona hemen aterpeen zerrenda:

● ORREAGA ●

Jabetza: Kolegiata Errealaren Kabildoak. Ohe kopurua: 57
--- 22 km ---

● ZUBIRI ●

Jabetza: Zubiriko Udala. Ohe kopurua: 18
--- 5 km ---

● LARRASOÑA ●

Jabetza: Santiago Zubiri. Ohe kopurua: 20
--- 9 km ---

● ARREKO TRINITATEA ●

Jabetza: Anaia maristak. Ohe kopurua: 20
--- 5 km ---

● IRUÑEA ●

Jabetza: Nafarroako Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak. Ohe kopurua: 20

Jabetza: Nafarroako Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak. Ohe kopurua: 100
--- 4 km ---

● ZIZUR TXIKIA ●

Jabetza: Maltako ordena subiranoa. Ohe kopurua: 20
Jabetza: Maribel Roncal. Ohe kopurua: 35
--- 20 km ---

● GARES ●

Jabetza: Erreparazioko fraideak. Ohe kopurua: 33
--- 21 km ---

● LIZARRA ●

Jabetza: Lizarrako Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak. Ohe kopurua: 64
--- 20 km ---

● LOS ARCOS ●

Jabetza: Los Arcosko Udala. Ohe kopurua: 40
--- 8 km ---

● TORRES DEL RIO ●

Jabetza: Carmen Pugliese eta Jeronimo Poyatos. Ohe kopurua: 30
--- 10 km ---

● VIANA ●

Jabetza: Vianako Udala. Ohe kopurua: 30

*Hauexek Frantses Bidean aurkitu daitezkeen aterpeak dira, Aragoitik datorren bidean ere zenbait aterpe daude; Zangozan, esaterako.

www.caminosantiago.com

Central de Reservas de Hoteles y Campings en Internet

Gezi horiar jarraituz

Donejakue bidea egiten duten erromesen kopurua anitzitu da azken urteotan

Sortu zenetik mila urte pasa eta gero, Donejakue bidea berriz ere erromesekin jarraituz, egunotan gure lurraldea gurutzatzen dituzten bidexka eta bidezidorretan oinez, zaldiz edo bizikletaz, gezi horiari jarraituz, Santiagorat abiatzen diren erromes anitz ikus daitezke. Azken urteotan erromes kopurua izan duen hazkunde dela eta, pelegrinen beharrak asetzea xede duen azpiegitura sortuz joan da pixkanaka: anaka: elkartek, gidak, mapak, liburuak, aterpeak, dendak... Orainsu antzinako bide zaharra Internetera ere ailegatu da.

LEPOTIK ZINTZILIK ERROMES MASKORRA SOKA luzean lotuta eta kua zintzilik duen makila eskuan, bidexka eta bidezidorretan ttipi-ttapa, pausoz pausoz, abiatzen dira lur-raren akaberaino gezi horiari jarraituz. Iru-di hori arrunt bilakatu da Nafarroan. Erromesen irudia da. Joan den urtean 28.000 pe-legrin pasa ziren Orreagako aterpetik. Aur-ten, oraindik lau hilabete pasa ez direla, 1.758 erromesek zeharkatu dute gure lurral-dea Santiagorako bidean. Orreagako Erromesen Bulegoko idazkari Marisol Goikoa-ren erranetan, erromesen kopurua handi-zen doa urtez urte. «Aste Santuan bakarrik 600 pertsona pasa dira hemendik; ostegu-nean, esaterako, 230 erromes zenbatu ge-niuen». Erromesen jatorria ere zabalduz doa. «Espainiatik datozenak dira nagusi, baina bertze herrialdeetatik ere anitz erromes da-tor: Frantziatik, Holandatik eta, bitxia bada ere, brasildar ugari ere etortzen da».

Historia apur bat

Santiago apostoluaren hilibiraino zihoan bidea 830. urtean deskubritu zen, orduan eza-gutzen zen munduaren finis terrae hartan; lu-r-raren akabera, alegia. XVI. mende arte arras erabilia izan zen lurreen izarren isla den bi-dea. Mendeetako gainbeheraren ostean, 1950. urtearen inguruan, errome-saldiaren lehen berpiztea gertatu zen Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak bultzatua, Frantziatik, eta izan bera duen elkartearen eragi-nez, Lizarran. Egund Santiagorako bidea lehen mailako kultur gerta-kari bihurtu da, eta Nafarroa haz-kunde horren lekukoa da. Doneja-kue bideak bi ibilbide ditu Nafarro-an zehar: Aragoiko bidea deitzen dena eta Zangozatik igarotzen de-na, Frantses bidea izenekoa. Azken hori Orreagatik pasatzen da, eta hori erabiltzen da gehien, dudarik gabe. Bi bideek bat egiten dute Ga-resen, antzinatean Europako Kale Nagusia deitzen zen hartan eta egund garaietako itxura gordetzen duen karrika luze eta ederrean.

Donejakue bideak 141 kilometro inguru egiten ditu Nafarroan barrena. Ipar-ekialdetik hego-mende-baldera abiatzen da; Orreagatik Bianara, hain zuzen ere. Orotara sei etapa beharrezkoak dira gure lurraldetik igarotzen den bidea zeharkatzeko. Erromesek 20 kilome-tro egiten dituzte batez beste egu-

nean, eta Orreagatik Santiagorako ibilbidea betetzeko 31 egun behar izaten dira. Guztira 761 kilometro. Nafarroan aurreneko etapa Orreagatik Zubiri bitartekoa da; bertatik Iruñera abiatzen da ibilbidea, eta hiriburuan egiten da bigarren gaua. Goizean goiz Garesera bitarteko bidea egiten dute erromesek, eta Aragoitik datozenekin bat egin eta gero, Lizarrarat abiatzen dira. Bosgarren egunean Los Arcosera ailegatu dira, eta, azkenik, Errioxan barneratzen dira. Beraz, orotara sei egun eta bortz gau igarotzen dituzte erromesek gure lurraldeko bidexka eta bidezidorretatik zehar.

Arestian erran bezala, hamaika dira Donejakue bidearen inguruan sortu diren ekimenak. Nafarroako Gobernuak zenbait gidaliburu eta mapa kaleratu ditu; baina udal, elkarte eta partikularren ekimenak ere nabar-menak dira: liburuxkak, aterpeak, erromesentzako dendak, erromesentzako janariak... zerrenda luzea litzateke. Azkeneko nobedadea, orainsu Nafarroako Kanpi-nen Elkarteak Interneten ireki berri duen orrialdea: www.caminosantiago.com. Bertan erromesek behar dituzten informazio guztien berri ematen da: ibilbideak, aholkuak, bitxikeriak... Natxo Calvo Elkarteak koordinatzailearen aburuz, bidea balio turis-

JOXE LACALLE ●



JOXE LACALLE ●

tiko ugari dauzka, eta hori sustatzeko ireki dute orrialdea. «Gure asmoa bertze herrialdeetako turistek zuzentzea zen, ezagutzearen bidearen inguruan dauden baliabideak: natura, artea, gastronomia... Horretarako bide zuzenena Internet zela pentsatu genuen, eta duela bi aste jarri genuen martxan orrialdea. Dagoeneko 55 bat kontsulta izaten ditu egunero», azaldu du Calvo. Interneten bidez erromesek lo egiteko erreserbak

Donejakue bideak 141 kilometro egiten ditu Nafarroan Orreagatik Vianarako norabidean. Bataz beste, 20 kilometroko sei etapa behar dira gure lurra zeharkatzeko

egin ditzakete kanpin zein hoteletan. Hala-ber, bertze erromesekin hitz egin ahal izan den bidearen inguruko bizipenak trukatzeko. Iruñeko Gazteluen enparantzan kamera ere ezarri dute, eta minutu oro bertan gertatzen dena ikus daiteke sarean. Antzinako bidea, beraz, oinez ez ezik Interneten bidez ere egin ahal izan dena hemendik aitzina.

→ Kristina Berasain

Cindy Hadusek

ERROMES AUSTRALIARRA

Australiatik gurera bidea egiteko asmotan

CINDY HADUSEK 28 URTEKO AUSTRALIARRA da. Camberra hirian bizi da, eta telebistaren bidez izan zuen Donejakue bidearen berri. Erreportaia ikusi bezain laster, Santiagorako bidea egin beharra zuela sentitu zuen. Ezbairik gabe bere eguneroko martxa utzi eta milaka kilometro egin zituen, bakarrik, gurera etortzeko. NAFAR-KARIAK elkarriketa egin dio Zizur Txikiko aterpean atseden hartzen ari zela.

■ Zerk arrazoi bultzatu zaitu Donejakue bidea egitera?

Arrazoi espiritualak direla medio etorri naiz honaino. Nire arimaren sakontasunean sentitu nuen bidea egin beharra nuela. Ez dut erlijio jakin bat praktikatzeko, baina barne senti-mendu bat da. Halaber, toki ederrak ikustea arras gustuko dut, eta Nafarroa polita da, dudarik gabe. Jende berria ezagutu nahi nuen, eta hizkuntzaren oztoppoa egon arren, ingelesez konpontzen naiz gainontzeko errome-

sekin. Gaur alemaniar batekin egin ditut ibilbidearen azken kilometroak.

■ Bidea bakarrik egitea zuk zeuk erabaki al zenuen?

Bai, nik horrela sentitu nuen. Barne bidea da. Neure burua hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen dit ibilbide honek. Egund bat eta bertzea, zu zeu, naturaren bakardadean.

■ Zer deritzozu orain arte egin duzun ibilbideari?

Izugarri polita izan da. Natura zoragarria da. Pozik nago, gaur pertsona bat ezagutzen duzu, eta hurrengo egunean bertze bat. Erromes bakoitzak erritmo bat dauka, eta ni lasai ibiltzen naiz, poliki-poliki. Nire oinak arras nekatuak daude.

■ Bideak dituen azpiegiturari buruz zer diozu?

Ondo daude. Aterpeetako jendea atsegina da, eta bidea bera ere ondo seinatua dago: gezi horiari jarraituz gero, ez dago galtzerik. Hala ere, azpiegitura guztiak hobetu ahal dira.



JOXE LACALLE ●

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Sanchez Asso eta Aralarko Liburua

Frantzisko Sanchez Asso legegizon eta politikari tuterarrak Aralarko Partzuergoari buruzko lan klasiko baten egilea genuen



Frantzisko Sanchez Asso Alderdi Integristaren kidea izan zen. Alderdia sortu ondoren 1893an nozitu zen lehenbiziko banaketaren ostean, Nocedalen aldeko adar ofizialistan geratu zen Sanchez Asso, eta Juan Jose Juanmartiñena buru zuen Nafarroako Batzarrean ordezkari jardun zuen. Sanchez Asso ez zen joan, zer gerta ere, *El Tradicionalista* egunkariaren zuzendaria zen Jose Maria de las Rivasekin, ez eta Madrilgo Gorteetan Alderdi Integristaren izenean diputatu zebilen Campioneekin ere. Izan ere, urte bertsuetan Sanchez Asso Tuterako alkate baikenuen, eta izen handiko disidente gutxi batzuk baino alderdi sendo bat beharrrago bide zuen bere bizkarrak guardatzeko. Edozein modutan ere, Sanchez Assoren aukeraketa politikoa bai bitxia zela Tuterako alkatetzari eutsi nahi bazion behinik behin, hain baitzen eskasa Alderdi Integristak Erribera osoan erdietsirik zuen arrakasta. Halaz guztiz, Sanchez Assok bitan jardun zuen auzapez bere sorterrian, 1891-1892 eta 1899-1901 bitartekotan.

Jose Sanchez Marco bere semea ausaz ezagunagoa izan zen politika arloan betiere, Madrilgo Gorteetan 1907-1916 urte bitartean Iruñeko distrituak aukeratuta diputatu jardun zuena Vazquez de Mella eta Vadilloko markesarekin batera. Madrilen ogutziz hitzaldiugariren artean -egunean ordezkari nafarren baten isil-

tasunarekin hagitx bat ez letorkeena- Nafarroako mugen gainean 1910eko abenduaren 21ean esan zuena edota Baztango uholdeetan kaltetuen alde 1913ko ekainaren 9an esanikoa aipa litezke. Sánchez Marco Alderdi Integristaren kidea ere bazen, XX. mendeko bigarren hamarkadan, eta Juanmartiñena larraundarrarekin batera, alderdiak Nafarroan zuen gizonik garrantzitsuenetarikoa.

Alabaina, politikan egin zuen lanarengatik baino, Sanchez Asso legegizon tuterarra are ezagunagoa izan zen Aralarri buruz taxutu zuen lanarengatik. Zeukan abokatu ospeak ahalbideturik edo, Aralarko partzuergokideek deituta, hau da, Aralarko Partzuergoa osatzen duten 19 herriek deituta: Etxarri-Aranatz, Ergoiena, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Irañeta, Ihabar, Iriberrri, Errazkin, Bete-lu, eta Araiz, Sanchez Assok *Comunidad de Aralar: memoria histórico-legal de la unión de su monte* izenburuko lana 1869an karrikaratu zuen Tuterako Liza-so eta Maiaren moldiztegian, aurreko 1867ko ekainaren 15erako sinaturik bazeukan ere -urte berean, eta Lehenbiziko Errepublikari aldarrikatu zela bide, Tuterako Alderdi Monarkiko-Katolikoari orria idatzi eta inprimarazi ere egin zuen-. Aralarri buruzko lana tratatu histo-

riko-juridikoa dugu, bi zatitan banaturik. Lehenbizikoan historiari buruzko zenbait eskaini zigun, Tubalén etorreraren garrantik hasita eta erromatarren zein godoen etorreraren jarraiturik, Sakana aldeko herrien sorrera arte; bigarrenean, berriz, Aralar inguruko herrien eskubi-deak, ordenantzak baita eztabaiden gaineko epai judizialak ere jaso zizkigun Tuterakoak.

Erribera aldean jaio eta Sakanarekin harreman estua izan zuen beste perstona bat Benedikto Barandalla izan zen. Tafallan 1900ean jaioa, gurasoak tokiz toki zebiltzan saltzaileak zituen, geroantzean ere berauk eginen zukeen bezala. Etxarriko auzokide batekin izaniko borrokarerengatik, Benediktoren aita giltzaperatu zuten, Duesoko kartzelan hil zitzaizolarik; orduz geroz eta gazteegia izan arren, ikazkin aritu zen 1921ean soldaduskara joan arte bederen. Ordurako karlista amorratua genuen, eta urte bat lehentxeago Alderdi Karlistak Zaragozan eginiko bilkura batean zertxobait famatu zen bildutako beste guztien aitzinean euskaraz hitz eginez. Soldaduska Afrikako gerratean egin zuen, ez sobera lasai, eta 1925era arte ez zen etxera itzuli. Etxarri saltzaile ibiltari jardun zuen, 1933an zinegotzi egin zuten, eta 1934ean kendu berria zen Ortze alkatearen postua bere egin zuen. Gerratea hasi zelarik, erreketetalde sendoa osatu zuen, nahikoa bere kasa Aralarko mendietan ibili zena goiko agintariek desegin arte. Halaz guztiz, honakoa beste historia bat dukegu.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Iruñeko hainbat gaztek etxabeak alokatzen dituzte. ● CRISTINA BERIAIN

Gaztetxe pribatuak

SALA NAGUSIAN KOLORE OROTARIKO besaulkiak, telebista, bideoa eta musika aparailua. Ondoko gelan, berriz, edariz beteriko hozkailua eta barra luzea. Pixka bat haratago harraska eta kumuna. Eskailerak igota, alde batean sofa zabala, une goxotan lasai egoteko lagun kutunaren ondoan, eta bestaldean ohe bat.

Hala badirudi ere, ez dira Nafarroako Gobernuaren babes ofizialeko etxebizitza berriak. Aspaldikoak eta ugariak dira zenbait herritan gazte taldeen piperok edo pipoteak. Herrietako ohitura hori hiriratu egin da orain. Arrosadian, batik bat, eta Iturraman, Rinaldin eta Bigarren Zabalgunean hainbat gaztek etxabeak alokatu dituzte azken urteotan.

Arrosadiako bizilagun Xabier Martínez de Lezeak dioenez, «gehienetan bi koadrilatoko 15 bat lagunaren artean alokatzeko ditugu sotoak. Guk 50.000 pezeta ordaintzen diogu hilero jabeari. Antolaketari dagokionez, lau taldeetan banatzen dira ardurak: garbiketa, dirua, edariak eta berrikuntzak».

Haien aisiarako aterpe bilakatu dituzte etxabeak. Gure lagunaren esanetan, gaztetxe txiki eta pribatuak dira. «Kalean, tabernetan edo etxean ez gaudenean, hementxe biltzen gara. Etxabearen funtzioa lagun artean erosu egotekoa da. Gurea, alternatiba bat baino gehiago, biltoki osagarri bat da. Babesleku bat».

Gazteen arteko topagune horietan egunero ez dago giro

berbera, eta denak une berean elkartzea ez da oso ohikoa izaten. «Asteazkenean zehar bazkaldu ondoren kafea hartzea etortzen dira zenbait, eta gauetan film bat ikustera edo solasean aritzera». Asteburuetan, berriz, bertan egiten dute hitzordua nonbaitera joateko edo bueltatzeko azken tragoa hartzeko. Xabierrek aitortu digunez, «sarritan azken tragoa gehiegi luzatzen da, eta baten bat ajeak jota hementxe gelditzen da lo seko. Tarteka, ekintza bereziak ere antolatzen dituzte: diapositiba emanaldiak, txapelketak eta jaialdi bereziak Sanferminetan, auzoko bestetan edo urtebetetzeetan. Horrelakoetan, kanpoko lagunak ere azaltzen dira egoitzan. «Saiatzen gara zarata handirik ez ateratzen; hala ere, auzokideek ez dute inoiz barkatzen».

Hori dela eta, Iruñeko Udalak azken asteotan etxabeen egoera arautzeko asmoa azaldu du. Hemendik aurrera lizentziak beharrezkoak izanen dira sotoak erabiltzerako tenorean. «Ez dugu begi onez ikusten asmo hori. Azken batean, Udalak kontrolpean izan nahi ditu gazteen topagune hauek. Erabaki horrekin nor garen eta zer egiten dugun jakin nahi dute, garbitasun eta segurtasun baldintzen aitzakian».

Oraingoan ere segurtasun indarren bidez egin nahiko dute garbiketa soziala. Udal agintariek nahiago lukete gazteak berriz ere parrokiako lokaletan elkartzea, apaizaren begiradapean. A zer garaiak!

Ziria

● Motxorrosolo ●

Elkarretaratzeak

INFORMAZIOA ERDIESTEKO, BESTE NORABAIT JO BEHAR. GARAI bateko pleguak orriotan. Informaziorik eza, utzikeria, nahita egindako hutsa, zuzentasunik ez erantzunetan. Bestalde, inork ez dio heldu seiko urtean pausatuta eztabaidari. Bizi gaituen giroaren adierazleak bat, bizkitartean, elkarretaratzeak dena du berdintzen.

Francisco Obregozo FERRATZAILEA


«Egun oso arraroa da norbaitek burdinolara behia ekartzea»

soslaia

Francisco Obregozo 57 urteko iruritarra da. Lau seme-alaba ditu, eta harriak lantzeko enpresa batean lanean dihardu. Ferratzeaz gain, beste afizioak ere baditu, guztiak nekazaritza munduarekin zerikusia dutenak. Behor batzuk baditu, berak dioen bezala «distratzeke»; etxeko belaiak ere zaintzen ditu, eta baratzean ere zenbait ordu pasatzen ditu.

Francisco umea zeneko garaietan lan anitz zegoen ferratzaile gisara lanean aritzeko. Berak gogoratzen duenez, egun osoa pasatu ahal ziren bere aita eta aitaxi animaliak ferratzen; izan ere, orduan lanerako abere ugari erabiltzen ziren.

Garaiak aldatu, eta lan egiteko moduak ere nabarmen aldatu dira. Lehen animaliak burdinolara eramaten zituzten baserriarrek; orain, aldiz, Francisko baserriz baserri ibili behar izaten du.



● ONDIKOL

Txikitatik Iruritako Francisco Obregozok aitaxi eta aita ferratzaile lanetan ikusi zituen, eta, denboraren poderioz, berak ere lanbidea ikasi zuen. Gaur egun lan hori betiko uzteko denbora gutxi falta zaiola uste du.

BIZI OSOA DARAMA FRANCISCOK behiak, zaldiak eta beste animaliak ferratzen. Ustetaz bere aitaxi Iruritako Ordoiki auzoan eraikitako burdinola zaharra erabiltzeko moduan da oraindik.

■ Noiz hasi zinen ferratzaile lanetan?

Nire aitaxi Ultzamatik Iruritarra etorri zen bizitzera familiarrekin, eta uste dugu berak burdinola garai haietan eraiki zuela; dena den, bera izan zen ferratzaile lan egin zuen lehenengoa, eta berarekin nire aita ere bizi guztia aritu zen horretan lanean. Beraz, ni ttiki-ttikitatik ibili naiz mundu honetan. Garai haietan jendea inguruko herri

guztietatik etortzen zitzairen; entzuna dut Eugitik ere abereak ekartzen zituztela ferratzaile. Doike inguru haietan ez zen burdinolarik izanen, eta bide luzea egiten zuten Iruritaraino.

■ Lehen ferratzaile lanetik bizi zitekeen?

Bai, noski. Egun guztia pasatzen zuen aita animaliak ferratzen; neuk ere ezagutu izan dut hori. Negu aldean beranduago argitzen baitu, argitu baino lehenago hasten ginen, eta akitu, bukatu, argiarekin ere. Garai hartan lanerako animalia asko erabiltzen ziren; behiak eta idiak, adibidez, kaskoak ez gastatzeko ferratu behar ziren. Gero hasi ziren behorak eta astoak erabil-

tzen, eta horiek ere ferratzen ziren. Gaur egun ezinezkoa litzateke ferratzaile lanetik bizi ateratzea: azienda kopurua anitz jaitsi da, eta lanerako orain ez da ia animaliarik erabiltzen, traktore eta gainontzekoak ibiltzen dituzte orain. Guk egiten dugun lana, zaldien ferrak alde batera utzirik, atzaparrak minberatuak dituzten behiak sendatzea da, ez maingutzeko.

■ Nola zen orduko lana?

Behien atzapar gaixtoendako ferrak geuk egin behar genituen, moldura heltzen zitzaigunean eskuz behar genuen forma ematen genien. Behor ferrak gehienak eskuz lehenago. Gero fabriketan egiten hasi ziren, eta

gehienetan merkeagoak ziren eta erosten hasi ginen. Bertalde, orain bezala lehen ere behie minik egin gabe ferratzen ikasi behar zen, iltzeak sartzerakoan haragia ez ukitzen. Behorra aiseago iltzatu daiteke, atzapar gehiago dauka. Oraingo lana niretzat okerragoa da: behi mainguk ferratzen ditugu bakarrik, eta gehienetan atzaparrak oso gaizki dituzte.

■ Azken urteotan zuk joan behar izaten duzu baserrietara ferratzaile?

Bai, lehenago denak guregana etortzen ziren, baina gaur egun oso arraroa da norbaitek burdinolara behia ekartzea. Orain lanerako animaliarik ez baita ferratzen, nik joan behar izaten dut baserrietara behi mainguk sendatzera. Iruritako gizon batek duela sei bat urte kendu zituen lanerako azken behiak, eta geroztik ez dugu gehiago egin. Zaldiak oso gutxi erabiltzen dira lanerako, bat edo beste bada, bai-

«Nire semeek zerbait ere ikasi zuten, baina ez zitzaien askorik interesatzen eskuak zikintzea»

na gehienak orain paseatzen ibiltzeko erabiltzen dira. Ez dakit asko iraungo duten, oso garestia baita zaldi horiek mantentzea.

■ Tresnak zerbait ere aldatu dira?

Nik ez ditut aldatu, baina badi-ra orain horretara dedikatzen direnek tresna elektrikoak dituzte. Ni gero eta gutxiago ibiltzen naizenez, ez du merezi bertze tresnarik erostea; zaharrek ongi konpontzen naiz.

■ Zeintzuk dira tresna horiek?

Sutegia, burdina goritzeko; tenazak, txikitzeko; tajaderak, burdina mozteko; mazak; puntera, ferrari zuloak egiteko; pujabantea, atzaparra berdintzeko; mailuak; raspa, azazkalak lijtzeko; ingudea eta isopoa, bertzeak bertze. Horiek guztiak oraindik burdinolan ditugu, eta gustatuko litzaidake noizbait ere museo etnologikoren batera eramatea, guk egindako lana nolabait ere gogoratzeko. Nire aitaxi Joaquín Obregozo zen etorri zen lehenengoa; haren semea, nire aita, Pedro Obregozo, 90 urterekin berriki hil da; beraz, burdinolak 200 urte ere eduki ditzake.

■ Ez dizu pena ematen ferratzaile lana galduz joateak?

Beno, horretara dedikatzen ibili behar duzu, baserriz baserri eta etxez etxe. Ez da lan atsegina; gainera, hurbiltzen zara eta lana hasi orduko zikinduta zaudete gainetik beheraino. Lan zikina da; gu ohituratuak gaude, baina, halere, laster utziko dudala uste dut. Nire semeek zerbait ere ikasi zuten, baina ez zitzaient askorik interesatzen eskuak zikintzea. Nik hori ulertzen dut; askotan, nirekin behartuta eramaten ditut.

→ Rakel Goñi



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Hitzari herria

Fenomeno bitxia gertatu da azken urteotan hainbat hitzen erabilerarekin. Garai batean, ez oso aspaldi, galarazita zeuden horietako asko, ahapeka baino ezin zirenak aipatu, merkaturari jarri dituzte enkantean, tratalari aberatsen eskura ditzaten eta lau haizeetara oihuka ditzaten. Gau ilunetan hitz larritz izkiriaturakoak, trantsizioz gabe, publizisten eta politikoen profesionalen karteletan ageri dira orain: *askatasuna, elkartasuna, demokrazia, etorkizuna...*

Mundu osoan halakorik gertatu bada, zeresanik ez lurralde korapilatsu eta aldrebestutako honetan. Dudarik gabe, herri polise-mikoa gara, hitz bakar baten inguruan hamaika esanahi eta nabardura asmatu dugu, behialako jakintsuen moduan. Nork baino nork ozenago errepikatu eta bakoitzak bere-erentzako bakarrik nahi ditu hitz-totemak, haiekin oheratzeko.

Horien artean *demokrazia* hitza maitatue-na dute agintari politiko txit gorenek. Gehiegizko erabileraren ondorioz guztiz gastatua, hesi moduan erabili da, elektrifikatuta eta igarobiderik estuena ere ez duena. Amildegia balitz bezala, alde batean demokratik omen daude eta bestean gainontzeko guztiak, gutxiengoaren gutxiengoa. Luze joko luke horien gainean erabili ohi den adjektibo zerranda luze eta aberatsa hemen jasotzeko. (Gainera, ez nuke beste zutabegile adituekin lehian sartu nahi).

Hitzak hitz, baina egunerokoan bete behar da horiei ematen zaien apaingarri teo-riko ederra. Ziurrenera UPN alderdia garaile aterako zen munduko demokraten lehenengo txapelketa antolatuko balitz. Haiek izanen lirakeke guapo, lirain eta demokratenak.

Eta hala izanen ez balitz, dekretuz agindu-ko luke aipatutako alderdiak haiek garaile izendatzea, horixe baita demokrata berri haiek duten armarik kuttunena. Parla-mentuari muzin egitea gobernuaren egonkorta-suna ziurtatzea denean, demokrazia handi-tzea da dekretuz agintzea, desberdin pen-tsatzan dutenak zokoratzea, gutxiengoa iraintzea, lagunak saritzea eta militarrekin hitzarmenak sinatzea eta plazak sinaduren gaintetik zulatzea.

Hitza herriari bai, eta hitzari herria.

gure aukerak

IPUIN KONTALARIAK

- ▶ **Aranguren:** Asteartean, Izaskun Mugikak *Truke* izeneko hau-rrantzako ipuina kontatuko du Liburuaren Eguna ospatzeko. Ekitaldia Aranguren Bailarako liburutegian izanen da, arratsaldeko 17:30ean.
- ▶ **Iruñea:** Asteazkenean, Joxemari Carrere ipuin kontalariak *Kon-doi bakoitzak bere istorioa dauka* lana aurkeztuko du, Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:30ean.

MUSIKA

- ▶ **Iruñea:** Asteazkenean, Erraldioen Txokoan, Mauleko Te-henta Taldeak (Pascalle Elizondoborda eta Jean François Ameztoi) *Zuberoatik zuzenean* emankizuna taularatuko dute, 20:30etik aitzina.
- ▶ **Iruñea:** Ostegunean, Goran Bregovic musikariak kontzertua es-keiniko du, Poloniako orkestraz eta Belgradeko koroaz lagundu-ta. Kontzertua Nafarroako Uni-bertsitate Publikoko areto nagusian izanen da, 21:00etan. Sarre-rak 3.000 pezetaren truke (120 libera) eskura daitezke.
- ▶ **Iruñea:** Ostegunean, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, Jonathan Carney eta Waldemar Mach-mar biolin joleekin batera, Ba-chen lanak joko dituzte, Gaiarre antzokian, iluntzeko 20:00etan.

IKASTAROAK

- ▶ **Iruñea:** Karrikirik soziolingusiti-ka ikastaroa antolatu du: *euskal-duntze prozesuko oztupoak gein-ditzen*. Matrikula hilaren 24a baino lehen egin behar da. In-formazio gehiago, 948-222589 telefonoan.
- ▶ **Iruñea:** Gorosti Natur Zientzia El-karteak hilaren 24an hasi eta ekainaren 21ean amaituko den sendabelarren ikastaroa antola-tu du. Informazioa eta izen ema-tea, kaldereria kaleko 34. zenba-kian.

HITZALDIAK

- ▶ **Iruñea:** *Euskara batua. Sorrera, bi-lakaera eta geroa* izenburua duen hitzaldia emanen du Euskal-tzaindiko kide Juan San Marti-nek, ostegunean, Mintzaldi Are-toan (Descalzos, 72) 20:00etan.
- ▶ **Iruñea:** Liburuaren Eguna ospa-tzeko, hilaren 23an, Kixoteren irakurketa egingen da Plaza de la Cruz Institutuan. Arratsaldean, Jose Luis Ochoa de Olzak *Kixo-tea eta musika* hitzaldia eskaini-ko du, arratseko 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Zizur Nagusia:** Fermin Diez de Ulzurrun margolariaren lanak

Kultur Etxean daude ikusgai, hilaren 22a arte; lanegunetan, 19:00etatik 21:00etara, eta jaie-gunetan, 12:00etatik 14:00eta-ra.

- ▶ **Iruñea:** Mikel Diez Alabaren margolariaren azken artelanak Zitudelatan daude zintzilika-tuak. Bertan ikus daitezke maiatzaren 4a bitarte.

BERTSOLARIAK

- ▶ **Donamaria:** Bihar larunbata, ber-tso afaria izanen da Donama-riako ostatuan, Oinarriak Plata-formak antolatuta. Bertan Aitor Mendiluze eta Jokin Sorozabal arituko dira bertsoetan, 21:30etik aitzina.

JAIALDIAK

- ▶ **Doneztebe:** Oinarriak Pla-taformak kultur zikloa jarri du martxan Malerrekan. Eki-taldi nagusia igandean izanen da, Donezteben. Bertan, eta goizeko 10:00etatik aitzina, artisauen erakusketa, grafi-tiak, musika eta dantzal-dia izanen dira bertzeak ber-tze.
- ▶ **Altsasu:** Igandean, Lurraren Eguna ospatuko da Altsasun. Hainbat ekitaldi izanen dira egun osoan: kalejira, txala-parta, herri bazkaria etabar. Jaieguna goizeko 11:00etan hasiko da, Herriko Enparan-tzan.

● MIKEL SAIZ



Urbanan gorbatarekin

Urbanako antzinako biztanleek harri bat bertzearekin jotzearen ondorioz sua sortu zuten. Trikuharraren garaiko gizon-emakumeek suaren inguruan antolatzen zuten bitzta. Suak negu hotzak berotze-ko, egun ilunak argitzeko, janaria egiteko eta espiritua pizteko balio izaten zuen. Suaren inguruan dantzaldiak eta akelarreak ospatzen zituzten. Egundorietan, ordea, ez zuten gorbatarik ipintzen. Hala ere, gorbatarekin ere dantza egin daiteke suaren babesean eta «beroa baduzu itzali sua».